

2008ko ekainaren 11an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.

5. Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da, idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN
ZINEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA
2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ
3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE
4.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL
5.- NAIARA ESNAL HUEGUN
6.- ANTXON GOMEZ LORENTE

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko Akta onartu .

Ez da onartu.

2.- Ezkialde hitzarmena onartu eta Alkatea ahalmenu izenpetu dezan

Alkateak hitzarmen honen berri eman du. Lehenagotik zinegotziei helerazi zitzairen hitzarmenaren edukia oso-osorik. Hala ere, bileran, atalez atal azaldu du. Eman beharreko pausuak laburbildu ditu:

- lehenik, hitzarmena ontzat eman
- bigarrenik, hitzarmena bi aldeek izenpetu
- hirugarrenik, eraikinaren gaur egungo egoera jasotzen duen espedientea jendaurrean jarri

BOZKETA: Alde: 5 bozka; aurka: 0; abstentzioa:2.

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Ezkialde auziaren inguruan Aldalur jaunarekin izenpetu beharreko hitzarmena eta Alkatea ahalmenu du horretarako.

Oharra: Akta honi bukaeran atxiki zaio izenpetutako hitzarmena

3.- Lokate bidearen lagapen hitzarmena

Hitzarmena osotasunean zinegotziei bidali zitzairen bilera aurretik posta elektronikoz, zuzenketa ala iradokizunak egiteko. Dena den, Alkateak, puntuaz puntu, eman ditu azalpenak. Inork ez du eragozpenik plazaratu.

BOZKETA: Alde: 7 bozka; aurka: 0; abstentzioa: 0.

AKORDIOA: Batzarkideek ahobatez onartu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko bide azpiegitura sailarekin izenpetu beharreko hitzarmena Lokate bidearen lagapena dela eta.

Oharra: Akta honi bukaeran atxiki zaio izenpetutako hitzarmena

4.- Armendigain kaleko 18, 20 eta 21 atarietan dauden bost etxebizitzaren eta hauei atxikitutako garaje zein trastelekuen behin-behineko kalifikazioa Aiako erregimen bereziko Udal etxebizitza tasatu bezala, “1,3” indizearekin.

ONDORENGOA IKUSIRIK:

BAT: Jarraian zerrendatutako interesdunek udalari eskatu diote, ondoren jasotako egunetan, Armendigain kaleko bost etxebizitza eta hauei atxikitutako garaje zein trastelekuen behin-behineko kalifikazioa egiteko Aiako Udal Etxebizitza Tasatu bezala:

- Jokin Azpiroz Arregi jaunak, 2008ko ekainaren 2an, 18-2-B etxebizitza dela eta
- Gerardo Azpiroz Sarasua jaunak, 2008ko ekainaren 2an, 20-2-A etxebizitza dela eta.
- Jose Ignacio Iburguren Azkue jaunak, 2008ko ekainaren 11an, 20-2-B etxebizitza dela eta.
- Naiara Esnal Huegun andereak, 2008ko ekainaren 2an, 21-2-B etxebizitza dela eta.
- Maialen Saizar Zuloaga andereak eta Jurgi Mendiluze Zuloaga jaunak, 2008ko ekainaren 3an, 21-behea-B etxebizitza dela eta.

BI: Armendi Gain sektoreko “R.3A.1” partzelan 24 etxebizitza, 27 garaje eta 31 trasteleku eraikitze obra lizentzia, udalak 2006ko urtarrilaren 16an eman zuen 4/06 Alkate Dekretuz, Pablo Borde Ondarra arkitektoak izenpetu eta 2005eko abenduaren 23an bisatutako proiektuari jarraiki. Aipatutako bost etxebizitza horiek, bertan daude aurrikusiak, baita, trasteleku eta garajeak ere, ezaugarriekin:

18. ataria

1) 18-2-B: etxebizitza, 84,96 m² erabilgarri; 23. garajea, 31,47 m²; 3.trastelekua, 8,03 m².

20. ataria

2) 20-2-A: etxebizitza, 87,92 m² erabilgarri; 17. garajea, 30,73 m²; 17. trastelekua, 7,79 m².

3) 20-2-B: etxebizitza, 84,96 m² erabilgarri; 18.garajea, 30,42 m²; 18.trastelekua, 7,90 m².

21. ataria

4) 21-behea-B: etxebizitza, 78,34 m² erabilgarri; 11.garajea, 31,32 m²; 22. trastelekua, 9,71 m².

5) 21-2-B: etxebizitza, 84,96 m² erabilgarri; 15. garajea, 30,82 m²; 21. trastelekua, 8,84 m².

HONAKOA KONTUAN IZANIK:

LEHENENGOA: Aipatutako interesdunak adierazitako etxebizitzaren esleipena jaso zuten, 2007ko azaroaren 29an egindako zozketa dela medio.

BIGARRENA: Aiako Hirigintza plangintza Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriak, foru Aldundiak 2007ko azaroaren 6an onartutakoak, Armendi Gain sektorean “babes publikodun etxebizitza” erabilera aurrikusi du espreski.

HIRUGARRENA: 2007ko azaroaren 7an behin-betiko onartu zen “S-II-5-Armendi gain” sektoreko exekuzio unitateari dagokion Borondatezko Birpartzelazio proiektuaren aldaketa eta aldaketa honen arabera, proiektuko 1 eta 2 partzelen xedea “udal etxebizitza tasatuan” datza.

LAUGARRENA: Aiako Udal Etxebizitza Tasatuen Ordenantzak, 2007ko apirilaren 23an onartuak eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean uztailaren 30ean argitaratuak, Aiako etxebizitza tasatuen ezaugarriak, kalifikazio prozedura eta mugak arautu ditu. Honela, orohar, etxebizitzek 90 m² erabilgarri izango dituzte, atxikitutako garajeek 30 m² erabilgarri eta trastelekuek 10 m² erabilgarri. Baina eraikinaren diseinu eta konfigurazioaren ondorioz azalera handiagoak izan ditzakete (4. art). Bestalde, Aiako udal etxebizitza tasatuen prezioa (garaje eta trastelekuak barne hartuta), erregimen berezian “1,7 indizea” da gehienez (6 art), beti ere, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioarekiko. Kalifikazioa Udalbatzaren eskuduntza da eta prozedurari dagokionez, lehenik, eraikitze lizentzia eskuratuakoa, behin-behineko kalifikazioa gauzatu da, gehienezko prezioa finkatuz, eta bigarrenik, lehen erabilera lizentziarekin batera behin-betiko kalifikazioa (10 art).

BOZKETA HAU IZANIK: Alde, 5 bozka; abstentzioa, 2 bozka.

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, erabaki du Armendigain kaleko 18, 20 eta 21 atarietan, dauden zerrendatutako 5 etxebizitzetara eta beraiei atxikitutako garaje eta trastelekuei **behin-behineko kalifikazioa ematea AIAKO ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEZALA “1,3” INDIZEAREKIN**, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioarekiko.

Bilera bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2008ko uztailaren 7an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLAK

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEK

MARI KARMEN EGURZA AGIRREK

ANTXON GOMEZ LORENTEK

NAIARA ESNAL HUEGUNEK

BITTOR SANCHEZ MENDIZABALEK

Idazkari-kontuhartzaileak.

HITZARMENA

GI-4162 “LOKATE BASERRIA (AIA)” ERREPIDEAREN JABETZA AIAKO UDALARI ESKUALDATZEKO

Aian, 2008ko ekainaren an,

Alde batetik, Igor Iturain Iburguren jauna, Aiako Udaleko Alkatea, eta beste aldetik, Eneko Goia Laso jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide-Azpiegitura Departamentuko Foru Diputatua, **BILDU DIRA.**

Lehenak Aiako Udalaren izenean eta Udala ordezkatzuz jardungo du – Udalbatzak 2008ko ekainaren 11an ahalmenu baitzuen- eta bigarrena, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta Foru Aldundia ordezkatzuz arituko da.

Bi alderdiek, elkarri nahikoa gaitasun juridiko onartu diote jarraian jasotako hitzarmena izenpetzeko eta **zera ADIERAZI NAHI DUTE:**

LEHENIK.- Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arau testu bateratuak - 2006ko ekainaren 6ko 1/06 Foru Dekretuak, alegia- 11. artikuluan, errepide jabetzaren eskualdaketa arautu du. Artikulu horren arabera, Sare lokaleko errepideak (sare horia eta grisa) Udalaren jabetzaper aialdatu ahal izango dira, beti ere, Aldundiaren ustez errepideak udalerrri mailaz goragoko interesik ez badu. Horrelakoetan, eskualdaketa onartzen duen udal akordio espresua beharrezko izango da.

BIGARRENIK.- Era berean, jabetza aldaketarik eginez gero, Foru Aldundiak, lagatutako errepidea “mantenu-egoera onean” utziko du, 11.6 artikuluan ezarri denez.

HIRUGARRENIK.- Aia udalerriko “GI-4162 -Lokate bide” izeneko errepideak 0,910 km ditu luze. GI-3710 errepideko 7,39 k.p.-an hasi eta Lokate baserrian du amaiera. Orain arte foru jabetzapean egon da, baina erabilera eta interesari dagokionez, ordea, udal izaera soila du. Udal izaera hau argiago ageri da, aintzat izanik, errepidea 6 km gehiagoz luzatzen dela eta zati hau, hain zuzen ere, udalarena dela.

LAUGARRENIK.- Aiako Udalak, errepidearen jabetza eskualdatzeko eskatu du 2008ko martxoaren 18an, idatziz. Baina, horretaz gain, errepidea bere gain hartu ondoren, asfaltoa hobetzeko asmoa adierazi du, errepidearen luzera osoan, bai orain arte foru titularitatekoa den zatian bai bere jabetzapeko zatian. Dena den, hobekuntza lan horiek Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion obligazioa gainditzten dute, Gipuzkoako Errepide eta Bide Foru Arau testu bateratuak, - 2006ko ekainaren 6ko 1/06 Foru Dekretuak-, 11.6 artikuluan xedatutako obligazioari helduz gero.

BOSGARRENIK.- Errepide Zuzendaritza Nagusiko Artapen Zerbitzuak egin eta espedientean ageri den txostenaren arabera, errepidea “mantenu-egoera onean” eskualdatzeko egin behar liratekeen konponketa lanen aurrekontua 156.630,81 eurokoa da. Lan hauek gauzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, Foru Arau testu bateratuko 11.6 artikuluari atxikiz gero.

SEIGARRENIK.- Hala eta guztiz ere, bi erakundeen aburuz, Udalak bere jabetzako zatian gauzatu nahi duen obra gogoan izanik, egokiagoa da, egikaritu beharreko lanak bateratuki egitea errepidearen bi zatietan. Izan ere, bestela, Foru Aldundiak mantenu lanak aurrez egitea alferrikakoa eta loturarik gabea gerta bait liteke. Gainera, Foru Aldundiak duen obligazioa, hau da, errepideak “kontserbazio-egoera onean lagatzeko obligazioa”, desegokiro betetzea suposatuko bailuke eta ondorioz, diru publikoaren erabilera eta kudeaketa desegokia eragin bait lezake.

ZAZPIGARRENIK.- Horregatik, 11.6 artikuluan ezarritako obligazioa dirutan betetzeari komenigarriago deritzote bi erakundeek, diru publikoa modu aproposagoan erabiltzearren.

BALDINTZAK

Lehen baldintza.- Gipuzkoako Foru Aldundiak GI-4162 errepidearen jabetza Aiako Udalari eskualdatuko dio, udal izaera duen bidea izanik, udalerrri mailaz goragoko interesik ez baitu.

Bigarren baldintza.- Errepidea aurrerantzean Aiako Udalaren jabetzapekoa izango da eta Udala arduratuko da bere mantenu eta ustiaketaz.

Hirugarren baldintza.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatu egingo du Errepide Sare Katalogoa, bertatik kanporatu egingo duelarik orain arte GI-4162 errepidea zena.

Laugarren baldintza.- Errepidea edo bide-zatia “mantenu-egoera onean” eskualdatzeko obligazioa (Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arau testu bateratuak - 2006ko ekainaren 6ko 1/06 Foru Dekretuak- ,11.6 artikuluan aipatu duena) dirutan beteko da . Hain zuzen ere, doi-doi, 156.630 euroko konpentsazio bidez.

Bosgarren baldintza.- Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere obligazioa betez, Aiako Udalari 156.630 euro ordainduko dizkio, hitzarmen hau izenpetu eta gehienez ere bi hilabete epe barruan, Aiako Udaletxearen Diruzaintzan diru-sarrera dela medio.

Seigarren baldintza.- Aiako Udalak ontzat eman du 156.630 euroko zenbatekoa, eta ulertu du ordainketa honekin beteta geldituko direla Gipuzkoako Foru Aldundiari dagozkion obligazioak, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arau testu bateratuak - 2006ko ekainaren 6ko 1/06 Foru Dekretuak- , 11.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarren baldintza.- Bi aldeek hala adostuz gero, hitzarmena eten eta indargabetu daiteke.

Zortzigarren baldintza.- Aurreko baldintzetako baten bat ez betetzeak hitzarmenaren iraungitzea edo haustea ekarriko du, beti ere, hilabete lehenago, idatziz eta modu argiz salaketa eginez gero.

Bederatzigarren baldintza.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Hitzarmenean jasotako gaia arautzen duen legedia ezarriko zaio, zuzenbide administratiboko gainerako arauetz gain. Hitzarmen hau betetzeko garaian sor litezkeen gatazkak aztertzeko eskumena Administrazio-auzietarako jurisdikzioak izango du.

CONVENIO EZKIALDE

En Aia, a _____ de Junio de 2008.

REUNIDOS:

DE UNA PARTE: DON IGOR ITURAIN IBARGUREN, mayor de edad, provisto de DNI nº 72.444.955-S, Alcalde del municipio de Aia

Y DE LA OTRA: DON JESUS MARIA ALDALUR IBARROLA, mayor de edad, provisto de DNI nº 15.899.474, con domicilio en San Sebastián, Carquizano nº 8- 2.

INTERVIENEN:

Don Igor Iturain Ibarburen en nombre y representación del Excmo. Ayuntamiento de Aia, facultado para la firma del presente documento en virtud de acuerdo _____

Don Jesus M^a Aldalur Ibarrola, en su propio nombre y derecho.

EXPONEN:

I.- Que, con fecha 13 de Octubre de 1995, la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dictó Sentencia, en Autos del Recurso Contencioso-Administrativo nº 1832/92 interpuesto por Don Jesús M^a Aldalur Ibarrola, por la que se anularon los acuerdos de fecha 31 de Marzo de 1992 y 11 de Mayo de 1992 adoptados por el Ayuntamiento de Aia por los que se concedió a Don Iñigo Izaguirre Tellería licencia para la construcción de un edificio bifamiliar en sustitución del Caserío Ezkialde-Erdi.

La precitada Sentencia ordenaba la retroacción del procedimiento administrativo a fin de que en él se observara la tramitación que disponía el artículo 43.3 de la Ley del Suelo, Texto Refundido de 1976 y posterior artículo 16.3 2^a del Texto Refundido de 1992.

Dicha Sentencia devino firme en virtud de Sentencia del Tribunal Supremo de fecha 24 de Enero de 2001.

II.- Que, con fecha 4 de Mayo de 2004, Don Jesús M^a Aldalur interpuso Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n^o 1 de San Sebastián, Autos n^o 159/04, contra la resolución de fecha 3 de Marzo de 2004 dictada por el Director General de Ordenación Territorial de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa por la que se desestima la alegación formulada por Don Jesús M^a Aldalur y se otorga a Don Iñigo Eizaguirre Tellería autorización para la construcción de una vivienda bifamiliar en la finca denominada EZKIALDE-ERDI de Aia.

III.- Que, con fecha 6 de Junio de 2005, el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo dictó Sentencia por la que se estimó el recurso contencioso-administrativo, declarando la disconformidad a Derecho de la resolución recurrida , y en consecuencia anulándolo. Dicha Sentencia fue confirmada en virtud de Sentencia de fecha 8 de Febrero de 2006, dictada por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en los Autos de Recurso de Apelación n^o 504/05.

IV.- Que, con fecha 30 de Marzo de 2006, Don Jesús M^a Aldalur Ibarrola, en virtud de las diferentes resoluciones judiciales recaídas sobre la edificación denominada Ezkialde-Erdi, presentó escrito ante el Ayuntamiento de Aia por el que solicitaba el inicio del expediente de restablecimiento de la legalidad urbanística, y en especial el derribo de dicha edificación.

V.- Que, tras diversas conversaciones, y con el fin de solucionar los conflictos judiciales y urbanísticos que existen sobre la edificación denominada Ezkialde-Erdi, los comparecientes convienen en suscribir el presente documento transaccional con base en las siguientes,

ESTIPULACIONES

PRIMERA.- Don Jesús M^a Aldalur Ibarrola renuncia al ejercicio de cualquier clase de acción, tanto en vía administrativa como en vía judicial, en lo relativo a las diversas cuestiones planteadas en los diferentes procedimientos judiciales habidos hasta la fecha sobre la edificación Ezkialde-Erdi así como aquellas que pudieran oponerse o ejercitarse frente a los actos administrativos que se adopten, bien por el Ayuntamiento de Aia o bien por la Diputación Foral de Gipuzkoa, en orden a una posible legalización de la edificación denominada Ezkialde-Erdi.

SEGUNDA.- En compensación por los perjuicios y gastos ocasionados a Don Jesús M^a Aldalur, el Ayuntamiento de Aia le abonará la cantidad de 132.222,00 euros.

La forma de pago de dicha cantidad será la siguiente:

- 20 de Junio de 2008: 33.055,50 euros
- 5 de Septiembre de 2008: 33.055,50 “
- 5 de Diciembre de 2008: 33.055,50 “
- 5 de Febrero de 2009: 33.055,50 “

El pago se hará efectivo mediante ingreso en la cuenta corriente nº _____
Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, firman por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha del encabezamiento